

8. FITXA GIPUZKOA - Gipuzkoako Lurralde Historikoan energia-komunitateak sortzea eta eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan autokontsumo kolektiboko erregimenean inbertitzea sustatzeko dirulaguntzak - A Programa

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta dagoen eta nortasun juridikoa, legala eta baliozkoa duen edozein erakunde publiko edo pribatu, baldin eta soil-soilik energia-komunitate bat sortzeko eskatzea erabakitzen badu, edo instalazio fotovoltaikoetan edota kideentzako mugikortasun elektrikoko zerbitzuetan inbertitzea erabakitzen badu (A Programa).

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziatzko araudia: [Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia: Gipuzkoako Lurralde Historikoan energia-komunitateak sortzea eta eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan autokontsumo kolektiboko erregimenean inbertitzea sustatzeko dirulaguntzak](#)

Eremuak: Energia jasangarritasuna

Zenbatekoa: 785.648 € (A Programa)

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/04/25

Laburpena

Deialdi honen helburua Gipuzkoako Lurralde Historikoan **energia-komunitateak sortzea** eta **horien inbertsioak abiaraztea** sustatzeko norgehiagoka bidezko dirulaguntzak esleitzea da.

A programak, zehazki, **komunitate energetikoak sortu eta kudeatzeari** egiten dio erreferentzia, baldin eta komunitate horietako kide gehienak jarduera ekonomikorik gabeko pertsona fisikoak badira, eta **instalazio fotovoltaikoetan** eta horiei lotutako **mugikortasun elektrikoko** zerbitzuetan inbertitzen badute.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

- a) Komunitate **energetikoak errazago eratu eta kudeatzera** bideratutako jarduketak, bereziki:
 - Energia komunitateak eratzekeo partaidetza prozesuak antolatzea.

- Abian jarri nahi diren energia komunitateei buruzko informazio kanpainak.
- Interesdunen aurreinskripziorako behar diren bitartekoak prestatzea (web orriak, inskripzio orriak, etab.)
- Energia komunitatearen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa eta hartuko diren gobernantza aukerak aztertzea.
- Energia komunitatea eratzeko legezko dokumentuak idaztea eta inskribatzea (estatutuak, eskritura publikoak, etab.).
- Energia komunitateei lotu nahi zaizkien eguzki energia fotovoltaikoko instalazioen bideragarritasun azterketak.
- Energia-komunitateak mugikortasun elektrikoko zerbitzuak garatzeko bideragarritasun-planak edota azterlanak.
- Txosten juridikoak egitea eta akordioak idaztea energia komunitateei lotu nahi zaizkien eguzki energia fotovoltaikoko instalazioak kokatzeko beharrezkoak diren estalkiak eta/edo lurrak lagatzeko.
- Energia komunitatea eratzeko eta kudeatzeko beharrezkoak diren web orriak edo informatika aplikazioak diseinatzea eta lantzea.
- Komunitate energetikoaren kudeaketa eta dinamizazioa, behin sortuta dagoenean. Atal honetan sartzen dira administrazio-kudeaketako lanak enpresa banatzailearekin eta bazkideen merkaturatzaileekin, energia-komunitateko bazkideen altak eta bajak, aldaketak banaketa-koefizienteetan, proiektu berrien diseinua, kudeaketa ekonomikoa, finantzaketa-iturrien bilaketa, laguntza-eskaeren eta justifikazioen kudeaketa, bazkideentzako energia-aholkularitzako arreta eta zerbitzua, datu energetikoen kudeaketa, etab.

b) Honako **bi inbertsio-mota** hauek egiten laguntzera bideratutakoak:

- **Eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioak**, autokontsumo kolektiboko erregimenean, eta horiei egokitu dakizkiekeen biltegitratze-sistemak. Instalazioen proiektu teknikoak eta gauzatzea bera barne hartuko ditu. Laguntza-programa honetara ezin izango dira bildu energia kudeatzeko eta biltegitratzeko sistemaz soilik osatutako instalazioak, salbu eta eskatzailea dagoeneko eratuta dagoen eta sistema horiek martxan dauden instalazio fotovoltaikoetan sartu nahi dituen energia-erkidegoa bada.
- **Mugikortasun elektrikoko zerbitzuak**, zehazki:
 - Auto elektrikoa **kargatzeko puntuak** instalatzea, energia komunitateko kideei zerbitzua emateko. Instalazio hori ez da indarrean dagoen legeriak behartuta egongo, eta karga-sistema adimenduna izan beharko dute, kontsumitutako energia elektrikoa eta jarduketa garatzen den lekuan egindako karga-kopurua monitorizatzeko. Informazio hori gailu mugikorraren edo web aplikazioaren bidez eskuratu ahal izango da.
 - **Ibilgailu elektriko puruak** erostea, energia-komunitateko kideek elkarrekin erabiltzeko. Ibilgailu berriak izan beharko dute, Espainian Energia Erkidegoaren izenean matrikulatuta egon beharko dute eta M1 Turismo kategoriakoak izan beharko dute (gutxienez lau gurpil dituzten ibilgailu motordunak, bidaiariak garraiatzeko diseinatuak eta fabrikatuak, gidariaren eserlekuaz gain gehienez zortzi plaza dituztenak).

Erakunde bakoitzak eskabide bat aurkez dezake gehienez.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagunduko den jarduera ezingo da **2024ko urtarrilaren 1a** baino lehenago hasia izan, eta **2024ko urriaren 31rako** gauzatu eta zuritu beharko da.

Laguntzen zenbatekoa

Proiektu bakoitzari emango zaion laguntzaren zenbatekoa diruz lagungarriak diren gastuen ehuneko bat izango da, BEZa kanpo, eta ehuneko hori oinarri arautzaileetako irizpideen arabera egindako balioespenean eskuratutako puntu kopuruaren parekoa izango da. Nolanahi ere, diruz lagundu daitezkeen jarduketa motaren arabera, eskaera bakoitzeko ezin izango dira muga hauek gainditu:

- Energia-komunitateak eratzea eta kudeatzea: 25.000 €.
- Autokontsumo kolektiboko erregimeneko instalazio fotovoltaikoetako inbertsioak: 75.000 € (biltegitratzeko sistemarik gabe) eta 130.000 € (biltegitratzeko sistemarekin).
- Lehendik dauden instalazio fotovoltaikoetan biltegitratze-sistemak sartzea: 75.000 €.
- Mugikortasun elektrikoko zerbitzu bat ezartzea energia-komunitatean: 100.000 €.

Gainera, proiektu bakoitzeko dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du gainditu dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontuan diruz lagun daitezkeen gastu guztien % 75.